

Urkiola

Parke Naturala Parque Natural

Manuel Ignacio Santa Cruz Loidi, Elduain baserrian (Gipuzkoa) jaio zen 1842an eta oso gazte umezurtz geratu zenez gero, Gasteizko apaiztegiara bidali zuten eta apaiztu egin zen. Mendeko gerlaririk ospetsu eta bilatuenetakoia izan zen, gerrilla karlisten buru borrokatu zena liberalen aurka.

Haren pasadizorik ezagunenetako bat Aramaio haranean gertatu zen, hara eraman baitzuten 1872ko udan, atxilotu eta heriotza-zigorra ezarri ondoren. Udaletxeko leiho batetik ihes egitea lortu zuen. Gau osoa Arexola errekan ezkutatuta igaro ondoren, hasieran Gantzaga auzoko baserri batean eta ondoren Nardin Koban, Ipizte mendiaren gerizpeko leize batean aterpetu zen eta han hiru egunez egon zen.



Santa Cruz apaiza bere gerlariekin
El cura Santa Cruz junto a sus guerrilleros

Manuel Ignacio Santa Cruz Loidi, nació en un caserío de Elduain (Gipuzkoa) en 1842 y al quedar huérfano muy joven, fue enviado al Seminario de Vitoria, donde se ordenó sacerdote. Fue uno de los guerrilleros más conocidos y buscados del s. XIX, que luchó contra los liberales al mando de las guerrillas carlistas.

Uno de sus pasajes más populares tuvo lugar en el valle de Aramaio, a donde fue conducido el verano de 1872 tras ser apresado y condenado a muerte. Logró huir por una de las ventanas del edificio del ayuntamiento. Tras permanecer toda la noche escondido en el arroyo de Arexola consiguió refugiarse en uno de los caseríos del barrio de Gantzaga y posteriormente en Nardin Koba, una gruta abierta a la sombra del monte Ipizte, donde permaneció durante 3 días.

PR-A 21



Aramaioko bira
Vuelta a Aramaio

NATURA 2000 sareko babesguneak
Espacios Protegidos RED NATURA 2000



www.bizkaia.eus
www.araba.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

araba álava
foru aldundia diputación foral



Aramaioko Udala



((112))
SOS DEIAK

FITXA TEKNIKOA

FICHA TÉCNICA

| | | |
|-----------------|-----------------------|--------------------|
| HASIERA | Ibarra | INICIO |
| AMAIERA | (Aramaió) | FIN |
| LUZERA | 18 km | LONGITUD |
| GEHI. MALDA | 1029 m | DESNIVEL ACUMULADO |
| DENBORA (g.g.b) | 5h 30' | TIEMPO ESTIMADO |
| IBILBIDE MOTA | Zirkularra / Circular | TIPO DE RECORRIDO |



Errepidea edo asfaltozko bidea 17% Carretera o camino asfaltado
Lur- edo harxintzar-pista 75% Pista de tierra o grava
Galtzada edo bidezidorra 8% Calzada o senda

Suitz txikia. Horrela definitu zuten Aramaio harana. Izan ere, edertasun handiko mendiz inguratuta, Aramaio bere izaerari eusten jakin du.

La Pequeña Suiza. Así es como definieron al valle de Aramaio. Y es que bordeado por montes de gran belleza, Aramaio ha sabido mantener su esencia.



informazioa eta trackak deskargatu:
descarga de información y tracks:



(EU)



(ES)

TOKI ALAI
Interpretazio Zentroa
Centro de Interpretación

☎ 94 681 41 55

MIDE

- 1 Inguuruak badu bere arriskua
El medio no está exento de riesgo
- 2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
Sendas o señalización que indica la continuidad
- 2 Zalbideko ibaldia
Marcha por caminos de herradura
- 3 3 ordutik 6ra bitarteko ibaldia gelditu gabe
De 3 a 6 horas de marcha efectiva



Aramaioko bira


0. km Ibilbidea San Martin Ikastolatik abiatzen da, Ibarra. Bide zahar batek **Gureia** auzoraino eramango gaitu eta bertan, **Uribarri** aldera desbideratuko gara. Gora jarraituko dugu **Zubieta**ko goialdera heldu arte, eta bertan, pista nagusia hartuko dugu. Bidea apurka-apurka ezkerretara biratzen hasiko da, **San Kristobal** basilizara heltzeko.

4.8. km Arangio mendilerorantz joateko errepidean eskuinera egin eta **Larrazabaleko** bidegurutzera iritsiko gara; bertaraino iristen da Ibarra-ko saihesbidea. Pista nagusitik gora jarraitu behar dugu hurrengo bidegurutzeraino, GR 12a alde batera utziz. Gero, bordaren ondoan, pista amaitsu eta harrobi zahar bateraino heltzen den bidezidorra jarraituko dugu. Hortik aurrera, bidea zabaldu eta Ipurtotz baserriraino jaisten den pista bihurtzen da, ur sulfurodun iturri baten ondotik igaroz. Hormigoizko bidea ezkerretara utzi eta gurdibide batera iritsiko gara, zeinek **Etxaguen** auzoraino lagunduko gaituen.

8.5. km Errotaren parean pista bat abiatzen da, Etxagueneko goialdera igotzen dena, auzotik galtzada zaharretik irteteko. Eskuinera egingo dugu Gantzagako haizten behealdean, bidegurutze handi batera iritsi eta ezkerretara jarraituz, Kasatxo bordaraino iritsi arte. Urbaltzagako iturriaren ondotik igaro ondoren, **Ipiztekoarriaga**ko lepora doan hartxintzarrezko bideari jarraituko diogu. Muinoari izena ematen dion hilarria dago bertan. **Tellamendi** tontorrerantz joko dugu, Kurutzaldeko lepotik **Larribilgo** leporaino.

14.6. km Pista nagusia eskuinetara utzi eta Ibarra-ko jaitsiko gara Lurgorri ingurutik. Lanabesetarako txabola baten parean **Ametzua** ingurura iritsiko gara. Hemendik bidezidor bat abiatzen da, minutu gutxiren buruan Bixente Goikoetxea plazara hurbiltzen gaituena.

18. km Ibarra



Arangio



San Kristobal



Tellamendi



Vuelta a Aramaio

km 0 El recorrido parte de la plaza de la Ikastola San Martin, en **Ibarra**. Un viejo camino nos lleva hasta el barrio de **Gureia**, donde nos desviaremos hacia **Uribarri**. Continuaremos ascendiendo hasta la zona alta de **Zubieta**, donde abandonamos el asfalto para acceder a la pista principal, que gira hacia la izquierda en dirección a la ermita de **San Kristobal**.

km 4,8 En la carretera giraremos a la derecha para acceder hacia la Sierra de Arangio. Alcanzamos el cruce de **Larrazabal**, a donde llega la variante de Ibarra y continuamos ascendiendo por la pista principal, dejando a un lado el GR 12. A la par de la chabola la pista deja paso a un sendero que discurre hasta una vieja cantera. A partir de aquí la senda se convierte en una pista que desciende hasta el caserío de **Ipurtotz**, pasando junto a una fuente de aguas sulfurosas. Abandonamos el camino hormigonado para acceder, a mano izquierda, a un camino carretil que nos guía hasta el barrio de **Etxaguen**.

km 8,5 Frente al molino parte una pista que asciende a la zona alta de Etxaguen, para abandonar el barrio por la vieja calzada. Giraremos a la derecha por la zona baja de las peñas de Gantzaga y llegaremos a una gran encrucijada, donde seguiremos por la pista de la izquierda, hasta alcanzar la borda de Kasatxo. Seguimos por el camino de grava que, tras pasar junto a la fuente de Urbaltzaga, se dirige hacia el collado de **Ipiztekoarriaga**, donde se encuentra la estela que da nombre a la loma. Nos dirigimos hacia la cima de **Tellamendi**, a la cual accederemos desde el collado de Kurutzalde y descendemos hasta el **collado de Larribil**.

km 14,6 Abandonamos la pista principal a mano derecha y descendemos a Ibarra por la zona de Lurgorri. A la par de una chabola de aperos llegamos al entorno de **Ametzua**. Desde aquí parte un sendero que en pocos minutos nos acerca a la plaza Bixente Goikoetxea.

km 18 Ibarra

IBILBIDE LABURREN MARKAK SIMBOLOGIA PR

| | | |
|--|--|--|
| | | |
| Zidorraren jarraipena Continuidad del sendero | Norabide aldaketa Cambio de dirección | Okerreko norabidea Dirección equivocada |